

...etta kitto!

803 zkia. 2012-IV-27

ASTEKARIA



Klik batean ARGAZKIEN HILABETEAK harrapatuta



Clínica Oftalmológica
RECALDE
oftalmología | retina

PRESBIZIAREN KIRURGIA

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com


- Antonio Murillo doktorea
PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA
- Ainhoa Zulueta doktorea
ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA
- Susana Sierra doktorea
ORTODONTZIA, OKLUSIOA



**Edozein tratamendu
dela ere, eskaintzen
dizkizugun abantailekin**


**BELDURRA
DENTISTARI?**

ZER DA HORI?



Sedaziazarekin

gustoa



ematen du!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik
ostegunera:
10-14 / 16-20h / Os-
tiraletan:
10-14 / 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

RPS 04/02

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Juan Antonio Palacios

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusker

IPURDI.- Gaztelerazko *'culo'*. Forma normala da. "Besterik ezian heure ipurdixa erakutsi". Hala ere, beharbada inguruko erderen eraginez, forma eufemistikoak ere erabiltzen dira. Eibarren ezagunenak: **Erregiaren arpegixa** eta **zati biko arpegixa**. "Baiña gizartian beti esna dabillan diabruak egin eban bere fetxurixia: goniaz batera jasota zeroian ehunezko atorra, zati biko arpegixa argira jarririk". Zerbaiten beheko partea, hondoa. "Lapikuak zihero baltzittuta zekan ipurdixa".

ESKUTITZAK

ANIMO, ANI

Behin irakurri nuen torturarik ez zela existitzen. Behin irakurri nuen irribarre batek ezin zuela mundua aldatu. Behin irakurri nuen kantatzeak ez zuela bihotza alaitzen. Behin irakurri nuen oihu egiteak ez zuela ezertarako balio. Behin irakurri nuen hura ez zela kabroi bat, eta hura ere ez... eta bestea gutxiago. Behin irakurri nuen itxoiteak ez duela merezi. Behin irakurri nuen begirada batek ez duela esanahirik. Behin irakurri nuen askatasuna ez zela posible. Behin irakurri nuen... Behin...

Gaur irakurri dezaket Torturak bai existitzen direla, gehiegi zoritxarrez, baina mundua aldatzeko bidean gaudela. Guztion elkartasunak, kantuak eta orduak merezitakoak direla. Kabroiak direlako... bai... oso... Baina zure irribarre eta begirada batek gure oihuak ozendu eta esperantza handitzeko kapazak direlako, bihotza alaitzeko kapazak, askatasuna hor dagoela sentitzeko kapazak...

Ani, Herria zurekin! Animo maitxia!

MIREN OTEIZA

JONE ALZAA-REN GERTUKOENEN IZENEAN

Ezer baino lehen, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu horrelako egun tristeetan gu gogoan izateagatik. Hitz asko eta asko behar dira gure ama eta emazte izan den Joneren heriotzean lagundu digu-

zuen denoi eskertzeko, baina mezu xume honen bidez, berriz ere, saiatuko gara zuen ahalegin eta ekin-tza guztiak konpentsatzen. Benetan eskerrik asko.

INIGO ETA JON ANDER

AUTOKARABANEN INGURUAN

Autokarabana bat daukat eta garajea gordeta dut, baina udalari ordaintzen diodan inpuetoarekin (kotxeena baino karuagoa) eskubidea dut kalean aparkatzeko eta beharra dudanean aparkatuko dut. Lotsagarria iruditzen zait autokarabanentzat parking pribatu bat egin duzuelako orain kalean aparkatzea debekatu dezatela eskatzea. Baina zer da hau! Orduan, nik garaje bat alokairuan eskaintzeko dudanez, kotxeak kalean aparkatzea debekatzeko

eskatuko dut, ez? Nik ere ikusi ditut autokarabana batzuk Mendiguren eta Zarrauan, eta oso ondo dardela iruditzen zait. Parking handia da, tokia dago, inori ez dio kalterik egiten eta jabeek euren zergak ordaintzen dituzte. Zuek negozioa egiteko debekatu behar da hori? Espero dut zuk inoiz ez duzula zure kotxea kalean inoiz ez aparkatzea, parking pribatuak eta garajeak egonda.

ANDER P.

asteko

HEMEROTEKA


esaldia

"Batzuk okela jan gabe bizi diren bezala, liburu, disko, antzerki edo zinemarik gabe bizitzen asmatuko genuke; ez litzateke mundua amaituko. Boutadea zirudien Jon Sarasuak kultur sortzaileak meritu, ekarpen eta ahaleginen eskalan harakinen pare kokatu zituenean; hara, handik bi egunera Gipuzkoako Diputazioak omenaldia egin zion Alberto Contador txirrindulariaren aferak kalteetako harakinari"

(Jon Eskisabel, kazetaria)

"Garapen bidean diren herrialdeetan heriotza saihesten dezake haurrari bularra emateak. Haurrari amaren esnea emateak 1,3 eta 1,45 milioi umeren heriotzak saihesten ditzaizakeela kalkulatu da, amaren esneak umeren sistema immunea suspertzen duelako, anti-gorputzak emanez. Gure artean, orokorrean, lehen 15 egunetan askok uzten diote bularra emateari, eta hirugarren hilean, gehiengoak"

(Idoia Labaien, Elikaduran dokorea)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Toribio Etxebarria Sarixetarako finalistak aukeratu dittue

DATORREN MAIATZAREN 10-IAN BANATUKO DITTUE COLISEUAN TORIBIO ETXEBARRIA ENPRESA-SARIXAK eta honetzeko finalista izateko enpresa-proiektuak eta ideiak aukeratu dittue. Euskadin antzinasun eta sarixetan banatzen dan diruagaittik inportantiena dan lehiaketako epaimahaixak hiru finalista aukeratu dittu "Enpresa Barrixak" atalian eta beste bost "Enpresa-idea/Proiektuak" atalian.



Enpresa barrixen ataleko finalistak hónék dira: **Oncoslide** (mintz zelularren "microarray"-xa, tumorieri aurre egiteko botika barriak billatzeko tresna bioteknologiko gisa. Leioa, Bizkaia), **Instant Sport. Wavegarden** proiektua (surfa egiteko olatu artifizialak sortzeko. Donostia) eta **Moway Robot Hezigarria** (teknologixia, elektronikia eta programaziñuaren ikasketara zuzendutako errobota. Barakaldo, Bizkaia). Eta enpresa-idea proiektuetan, barriz, hónetxek dira

finalistak: **Mecatronia** (tona haundiko bobinak pillatu eta tratatzeko logistikarendako soluziñua, Donostia), **Mugibox** (ibilgailuendako konektibidade inteligentia, Donostia), **Enigmedia**. (2. belaunaldiko bideokonferentzia-sistemak, Pasaia), **Oilcondition** (fluidoaren monitorizaziñorako sensore optikuak on-line, Eibar) eta **Composites Patch** (Composites all weather-en egiturazko konpontze-sistemia, Donostia).



Urkullu, Sarasketa, Sojo eta Egibar harañegungo ekitaldixan. / SILBIA HERNANDEZ

Antonio Sarasketa, Mercedes Kareaga eta Indalezio Ojanguren omenaldixa

EGUAZTENIAN, ITALIANUEN ABIOIAK GURE HERRIXA BONBARDATU ZEBELA 75 URTE BETE ZIRAN egunian omendu zittuan EAJ-k Antonio Sarasketa, Mercedes Kareaga eta Indalezio Ojanguren alderdikidiak. Untzagan egindako ekitaldixan Iñigo Urkulluk eta Joseba Egibarrek hartu eben parte eta, ikurriña altxauta, EAJ-ko kidiak gogora ekarri zittuen oin dala 75 urte gure herrixa suntsitu eben bonbardaketak eta omenduen artean bizirik dagan bakarrari, Antonio Sarasketari, oroigarrixa oparitu zetsen. Omen-dutako beste lagunen famelixakueri, barriz, lora-sorta bana emon zetsen. Batzokixan bazkalduta amaittu zittuen ekitaldixak.

Bestalde, bertan egunian, arratsaldian, Eibarko Bonbardaketaren 75. urteurrena gogoratzeko antolatatu dan programaziñuaren barruan Jesus Gutierrez historialarixak bonbardaketaren gaiñian emon eban hitzaldixak jendetza batu eban, Portaleko areto nagusixa txiki lagata. Atzo, barriz, Maialen Lujanbio bertsolarixak eta Juan Pinilla flamenko abeslarixak kantuz gogoratu eben oin dala 75 urte pasautakua Coliseuan eskindu eben ikuskizunian.

Gizarte zerbitzuen arreta bikoiztu egin da

ANA RODRIGUEZ GIZARTEKINTZAKO ZIÑEGOTZIXAK ETA JAIONE AZKUE SAILLEKO ARDURADUNAK aurreko astian presentatu eben 2011ko gizarte zerbitzuen memorixia. Iaz 4.730 kasuri eskindu jakuen arretia, 2010. urtian (4.357) baiño 373 gehixagori eta 2009xan (2.450) baiño 2.280 gehi-

xagori. Krisixak eraginda Gizartekintzara jo dabenen kopuruak, beraz, % 93gora egin dau 2009tik hona. Igoera haundixenak 2009xan eta 2010ian izan ziran, iazko igoeria %8,5ekua izan zan eta. Batez be pertsona nagusixak (%44'49) eta baliabide ekonomiko gitxi dakenak (%41) jo dabe laguntasun eske.

Euskararen transmisiuaren mintegixa

MAIATZAREN 8-XAN EUSKERIAREN TRANSMISIÑUAREN INGURUKO MINGEGIXA EGIN-GO DA Portalean, ...eta kitto! Euskara Elkarreak Udalaren laguntzarekin antolatuta. Iazkuaren bidetik, egun osorako mingegixa irakaslieri, euskara teknikerixeri, euskara alkartietako bihar-

giñeri eta aisialdiko alkartietan dihardueneri zuzenduta dago. Izena emoteko ...eta kitto! Euskara Elkartera jo leike (Urkizu, 11 solairuarrea), 943200918 telefono zenbakira deittu edo normalizazioa@etakitto.com helbidera idatzi. Preziua 20 eurokua da, bazkarixa barne.



Hezkuntza-eskubidia bermatziaren alde



Kanpainaaren aurkezpenian Aldatze ikastetxeko ikasliak hartu eben parte. / SILBIA HERNANDEZ

ASTELEHEN EGUARDIXAN HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDUKANPAIÑIA AURKEZTU eben udaletxian. Eibarren Egoaizia Gobernuz Kanpoko Erakundiak eta Juan San Martin Liburutegixak alkarlanean antolatutako programaziñuaren barruan dokumental bi eskindu dittue, taillar batekin batera. Eibarko ekitaldixak amaittu diran arren, datozen egunotan beste hiri batzuetan jarraipena eukiko dabe.

autuan

MOTORREN AZTERKETIA

Maiatzaren 8xan, goizez, motorren azterketa teknikua Eibarren, zezen plazan egitteko aukeria eskinduko dabe. Aurretik hitzordua eskatu biharko da, baiña, udaltzaiñen telefono zenbakira (943708424) deittuta. Inspekziñuaren prezia 24'45 eurokua da eta 10 bat miñutuan egitten dala emon dabe aditzera arduradunak. Lau erroberadun motorrik edo ziklomotorrik ez dabe onartuko.

PRESUEN ALDE

Aurreko hillian egindakuaren bidetik eta aurrerantzian hillero egingo daben moduan, gaur arratsaldian presuen eskubidien aldeko "Azken Ostirala" ospatuko dabe, Eibarko Herrirak deittuta, 19.30xetan Untzagan alkartu eta giza-kataia osatuta. Antolatzailliak herritar guztiak bertan parte hartzera animau nahi dittue.

Debarrena Gipuzkuan gitxien birziklatzen daben eskualdia da

AURREKO ASTIAN EMONDAKO PRENTSAURREKUAN, BILDUKO ORDEZKARIXAK

gure eskualdiak 2011n hondakiñen %27a baiño ez ebala birziklatu emon eban aditzera, "Gipuzkuako batatz bestekua %40 ingurukua" dala gaiñeratuta. Gauzak holan, PSE-ren esku dagan Mankomunidiari "emaitzak hobetzeko eta egoera honi bueltia emoteko bittarteko egokixak jartzeko" eskatu detse.

Agerraldixan esandakuari jarraituta, "Foru Aldunditik gure eskualdeko birziklatze-tasak jaso dittugunian, Elgoibarko eta Eibarko Bilduko ki-diak harridura eta lotsia sentidu genduan". Euren



Bilduko ordezkariak "harridura eta lotsia" sentidu ebela esan eben. / SILBIA HERNANDEZ

berbetan, "Eibarren sortutako hondakiñen %78,44a zabortegira bota zan (Elgoibarren %75,67). Elgoibartarrak millioi erdi euro eta eibartarrak millioi bat euro ordaindu bihar dittugu gero hondakiñak bihar dan moduan ez bereiztia-rran. Oin dala gitxi 5. kontenedoria ipiñi zeskuen eta %80xak ez dau ekimenian parte hartzeko ize-nik emon, beraz birziklatze tasak gora egitteko aukera gitxi izango dau".

World Plone Eguna CodeSyntax-en

MUNDU MAILAKO WORLD PLONE DAY 2012 EKITALDIXAREKIN BAT EGIÑ

eban CodeSyntax enpresiak eguaztenian. Jardunaldixan, Euskal Herrixan webguniak kudeatzeko Plone izeneko sofwarea erabil-tzen daben hainbat enpresa eta elkartietako ordezkariak euren esperientziak azaldu zittuen. Parte hartu ebenen artian Mondra-gon Unibersidadia, ULMA Packaging eta

OSHA Bilbon egoitza dakan Europako agentzixa aittatu geinkez. CodeSyntaxek berak be, Ploneren historixan izan diran bar-rittasunak azaldu zittuan, azken urtiotan munduan zihar antolatu diran gaixaren gai-ñeko konferentzixetan (Budapest, Bristol edo San Francison) parte hartu izan dau-eta. CodeSyntax 2000. urtian sortu zan in-terneten arluan biharrian jardun nahi eben



hiru laguneren ekimenari esker eta gaur egu-nian 14 lagunek dihardue bertan, interneten era guztietako proiektuak garatzen.

AMELIA BASABE BASABE (Victor Aulestiarteren alarguna)

Bixar beteko da hillia laga gintuzula; halanda be, astelehenian zure eguna zala gogoratuko dogu, zure samurtasuna betirako izango baita gure artian.

FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



asteko

7.520

datua

kilo bomba bota zittuen italienuak 1937ko apirilaren 25eko arratsaldian Eibarren, 100 kiloko 21 eta 50 kiloko 103. 855 etxebizitza suntsitu zittuen.



Gipuzkuako dendarixeri omenaldixa

DOMEKAN MIRAMAR JAUREGIXAN GIPUZKUAKO MERKATARITZA FEDERAZIÑUAK urtero egiten daben asanblearen testuinguruan gure probintziako hainbat dendariri omenaldixa egin zetsen eta 50 urtetik gorako historixia eukitziagaittik omenetakuen artian Eibarko Benicoba eletradendia egon zan. 1960xan Luciano Larramendik sortu eban dendiak butano zerbitzurako lizentzia be bazezan. Omenaldi-ekitaldixan egon zan Alicia alabiak hartu eban aittaren errelebua eta 2004tik aurrera Nerea soziuarekin batera daroia Juan Gisasola kaleko dendia.

Gerra Zibilla eta zinia bat eginda



GERNIKAN ETA EIBARRREN OIN DALA 75 URTE GERTATUTAKO BONBARDAKETEN HARIRA, 2012 Euskadi Fundaziñuak "kulturalorien transmisioñua gauzatzeko plataforma modura" hainbat ekitaldi antolatu ditu herri bixetan. Eibarren dato-

rren astian, maiatzak 3an ziniari eta Gerra Zibillari eskindutako saiua hartuko dau Coliseo antzokixak, 20.30xetatik aurrera. Bertan "Entierro del benemérito sacerdote vasco Jose M^a de Korta y Uribarren, muerto en el frente de Asturias", "Semana Santa en Bilbao", "Gernika" eta "Elai-alai" ikusteko aukeria egongo da.

Igogailu barrixak martxan

BARAKALDO ETA WENZESLAO ORBEA KALIETAKO IGOGAILLUAK ASTE HONETAN, martitzenian ipiñi zittuen martxan: Barakaldo kalekua 27. zenbakixaren aldamenian ipiñi dabe eta 132 etxebizitza-ri, 297 bizilaguni zerbitzua emongo detse, Electrociclos ingurura egitten diran jua-erri-rrixak erosuaguak bihurtuta. Igogailuaren preziaua 170.630 eurokua izan da eta hortik 32.405 euro Eusko Jaurlaritzak pagau ditu, 2010eko akzesibilidate planari jarraituta. Wenzeslao Orbea kaleko igogailluak, barriz, 168.213 euroko kostua izan dau eta Eusko Jaurlaritzak pagau dau oso osorik, diru-laguntza nominatibo baten bittartez. Kale horretako 7 eta 9 zenbakixen artian ipiñi daben igogailluak 93 etxebizitza-ri, 211 bizilaguni eskinduko detse zerbitzua.



Barakaldo kaleko 27. zenbakixaren aldamenian ipiñi dabe igogailuetako bat. / ISABEL HERNANDEZ

Hónek bixekin 10 dira herrixan martxan ipiñi dittuen igogaillu publikuak, baiña egunotan Barrena kalia zabalduko diranak gehitu biharko jakoz zerrendiari: 24 eta 26 zenbakixen bittartian eraikittakua atzo zabaltzekua zan eta 28 eta 30 zenbakixen bittartekua, barriz, datorren astiaren amaiera aldian zabaltzia espero dabe. Bixak erabilleria publikua eukiko dabe eta 74 eta 55 etxebizitza-ri emongo detse zerbitzua, hu-

rrenez hurren. Honezkero martxan dagan igogaillu Urbicolan enpresiak egin dau eta kostua 155.256 eurokua izan da (horretatik 46.830 Eusko Jaurlaritzak pagau ditu, 2009ko akzesibilidate planari jarraituta). Eta beste igogaillu Excavaciones Olloquieguik egin dau, 179.910 euroko aurrekontuarekin (Eusko Jaurlaritzak 40.000 euro ordaindu ditu bestiaren akzesibilidate plan berari jarraituta).

Itxaropena ikuskizuna gaur Untzagan

GAUR GABIAN, 22.30-XETATIK AUERRERA 'ITXAROPENA' IZENBURUKO oroitzapen-ikuskizuna eskinduko dabe Untzaga plazan. Multimedia-lanak 1937xan Euskadiko hainbat udalerritan izandako bonbardaketak ekarriko ditu gogora, argixa, musikia eta irudixak osatzen daben montajian. Sostoa abesbatzak zuzenian jardungo dau eta, eurak diñuezez, "duda barik guretako esperientzia barrixa izango da. Ikus-entzunezko efektuak izango dittuan ikuskizunian jardungo dogu kantuan, dantzari bikaiñak lagunduta eta hori guztia Mikel Laboa eta Iñaki Salvadorren konposizioñu musikalaren gaiñian montautu juango da, laguntasun sinfoniko eta koralarekin". Ensaiuetan Innevento Producciones enpresako lantaldea eta Iñaki Salvador musikari ezagunak izan dittue gidari.

Sostoa abesbatzarendako beroketa modukua izango da gaurkua, bixar be Coliseuan izango dalako, 19.00etatik aurrera Pedro Palacin eibartarrak zuzentzen daben Andres Egiguren orkestari "Gernika" kantatan laguntzen, Donostiako Easo abesbatzarekin batera. Bixarko ikuskizunian Mendelssohn-ek biliñandako idatzi-



ttako kontzertua eta Dvorák-en "Sinfonía del Nuevo Mundo" be eskinduko dittue. Sarrerak 10 eurotan erosi leikez Coliseoko leihatillan.



Mozketen aurrian, bihargiñen garrasixa

esker lortutako eskubidiak zelan murrizten doiazen ikusten dihardue bihargiña.

Herrixan eta hiriburuetan

Sindikatuak hainbat ekintza antolatu ditue Maiatzaren Lehena ospatzeko, bai herrixan, bai Bilbon eta Donostian. LAB sindikatuak, adibidez, eskualdeko manifestaziñua deittu dau Untzagan 12.00xetan hasitta. Gero, herri bazkarixa egingo dabe Untzagan 14.30xetan Untzagan eta tiketak LABeko egoitzan dagoz salgai.

ELAK, beran aldetik, Bilbon ospatuko dau eguna 'Ezinbes-

tez, sindikatuak' lelopian. 11.30xetan Aldolfo Muñoz 'Txiki' idazkari nagusixak Gran Vian berba egingo dau eta 12.00xak aldera abiatuko da manifestaziñua. Horren ostian, Barakaldoko BECen batuko dira bazkaltzeko.

CCOO eta UGTk batera egingo ditue maiatzaren 1eko ekintzak. Donostiako Alderdi Ederetik hasittako manifestaziñua egingo dabe 12.00xetan eta, hara juateko, autobusak egongo dira Ego Gain-en 10.30xetan. Lan eta gizarte-eskubidiak aldarrikatuko ditue Gipuzkuako hiriburuan sindikatu bixak.

Chikagoko martirixak omentzeko eguna da maiatzaren 1a, Langillien Nazioarteko Eguna. Bihargiñen eskubidiak aldarrikatzeko asmuarekin, bihargiñak (eta lan barik daguazena be, gaur egunian batez be) kaliak hartzen ditue egun horretan, eta krisi ekonomikua hain sakon bizi dan sasoi honetan, gero eta indar haundixaguarekin egingo dabe

garrasi, egun horretarako antolatuta daguazen ekitaldixetan.

Estaduko ekonomia datuak gero eta okerraguak dira eta, hortik urtetzeko aitzakixarekin, Espaiñiako Gobernuak langillion eskubidiak murrizteko neurrixak hartzen dihardu azken hillebetiotan. Mozketa moduan ezagutu diranak jarri ditue martxan agintarixak eta urtietan zihar egindako biharrari

MODU ERAGINKORREAN MOBILIZATZEN GARA LAN ETA GIZARTE ESKUBIDEAK ERREBINDIKATU, BABESTU ETA HOBETZEKO

MANIFESTAZIOA DONOSTIAN
Alderdi Ederren, 12.00etan
Autobusak Ego-Gainetik: 10.30etan

CCOO
 sindikatua langile komunistak

maiatzak

GORA MAIATZAREN LEHENA

Lotu borrokarari!

Eskualdeko manifestazioa
12.00etan UNTZAGAtik
Herri bazkaria
14.30etan UNTZAGAn
TIKETAK SALGAI LABEKO EGOITZAN

UGT Euskadi
 DEBABARRENA UROLA KOSTA

MANIFESTAZIOA DONOSTIAN
12.00etan, Alderdi Ederren
AUTOBUSA 10.30etan, Ego Gainen

LANA DUINTASUNA ESKUBIDEAK

Gora Maiatzaren Lehena!!!

Erasoei aurre!!!

ELA
 EUSKAL SINDIKATUA

Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) herritarren artean tumorerik ohikoena da kolon eta ondestekoa. 1.600 lagunerik diagnostikatzen zaio urtero eta 2.000 izaten dira ospitaleratuak arrazoi horregatik. Gaitzari aurre egiteko, Osakidetza kolon eta ondesteko minbiziaren goiz detektatzeko programa jarri du martxan, eta eibartarrei tokatu zaie txanda orain.

KOLONEKO MINBIZIAREN aurka, prebentzioa lagun

Osakidetza 2009. urtean abiatu zuen kolon eta ondesteko minbiziaren aurka antzemateko proiektua eta otsailetik aurrera dihardu martxan Debabarrena mailan, Mendaroko Ospitalean. Horretarako, hainbat pauso dituen programa bat diseinatu dute.

Eibarko 50 eta 69 urte bitarteko biztanleek Osakidetzaren eskutitza jaso dute etxean. Bertan, kolon eta ondesteko


minbiziaren goiz detektatzeko kanpainaren gaineko informazioa aurkitu dute eta, hementik gutxira, proba egiteko gonbidapen-gutuna jasoko dute horretarako behar den materialarekin. Mendaroko Ospitaleko arduradunek "oso" garrantzitsutzat jotzen dute proba egitea.

Hodi batean gorozki-kopurua txiki bat hartu eta bakoitzak bere osasun zentroan la-

ga beharko du. Proba Mendaroko Ospitaleko laborategian aztertuko da eta emaitza gutunez igorriko zaie herritarrei. Negatiboa bada, urte biren bueltan berriz egin beharko da proba. Positiboa bada, kolonoskopia egin beharko da kasua hobeto aztertzeko.

%90eko aukera sendatzeko

Kolon eta ondesteko minbi-



zia hestee-tako polipoetatik sortzen da, beraz, kolonoskopiaren lana polipoak aurkitu eta kentzea da. 30-60 minutu bitarteko proba izango da ("neketsua delako eta abilezia eskatzen duelako") eta antzemandako polipoak aztertu egingo dira ostean.

Arantxa Mendiguren Mendaroko Ospitaleko arduradu-

ARANTXA MENDIGUREN (Mendaroko Ospitaleko zuzendaria), eta **LEIRE ZUBIAURRE**, **EVA ZAPATA** eta **ARANTXA IRIBARREN** (Mendaroko Ospitaleko Digestiboko-Zerbitzua).



"Kolonoskopia eroso da pazientearentzat"

- Kolon eta ondesteko minbiziaren goiz detektatzeko programarekin lanean diharduzue. Nolako martxa darama?

Hau egiteak merezi duela ikusi dugu, izan ere, polipoak dauden hainbat kasu ikusi ditugu (200 bat), polipo handiak diren kasuak eta horiek edukitzeak arriskua suposatzen dutenak. Programa hau oso berri zailea da eta Europan begira dauzkaguna ea nolako emaitzak ateratzen ditugun.

- EAEko herritarrei gehien eragiten dien minbiziaren kolon eta ondestekoa. Zenbaterainokoa da proba hau egitearen garrantzia?

Oso tumore garrantzitsua da kasuen portzentaiaren eta heriotza-tasan, baina sin-

tomak agertu aurretik antzeman daiteke eta sasoz diagnostikatuz gero, sendatu daiteke. Beraz, oso garrantzitsua da herritarrentzat detekzio goiztiarraren proba egitea.

- Jendea arazoak jabetzen dela esango zenukete?

Gero eta gehiago, inguruan kolon minbiziaren izan duten jendearen kasuak izan dituztelako batez ere.

- Gorotzetan odola detektatzeko probak positibo ematen badu, kolonoskopia egin behar zaio pazienteari. Horrek badu arriskurik?

Arriskuak ditu, baina ez dira batere ohikoak. Gainera, pazientearentzat oso ero-

soa da, lasaigarria ematen zaielako eta ez dutelako ezer sentitzen.


- Emaitza negatiboa emanez gero, zer?

Urte biren ostean berriz egin beharko zaio proba pertsona horri. Bestetik, emaitza positiboa bada ere, ez du esan nahi derrigorrez pazienteak minbiziaren duenik.

- Nola prestatu behar da pazientearen kolonoskopia egiteko?

Oso garrantzitsua da pazientearen hestea oso garbi egotea. Horretarako, dieta bat egin beharko du eta purga hartu. Horrek komunera joanaraziko dio, baina ezinbestekoa da, hestea garbi ez badago, proba errepikatu beharko delako. Normalean, jendea ondo prestatzen da.

Polipektomia edo polipoa kentzeko sistemaren irudia.



naren eta Leire Zubiaurre, Eva Zapata eta Arantxa Iribarren Mendaroko Ospitaleko Digestiboko-Zerbitzuko kideen berbetan, *“kolonoskopia egitean, gaitza, agertu aurretik antzeman daiteke, epe luze minbizia izan daitekeen lesioen bitartez”*. Zentzu horretan, gaitza garaiz antzematzen bada, *“%90eko aukera dago sendatzeko”*.

Saihestu daiteke?

Sendagileek diotenez, ez dago argi gaitz hau nola prebenitu daitekeen, *“jaten dugun guztia pasatzen delako kolonetik”*. Hala ere, milaka pazienteri egindako ikerketek dieta osasuntsua izatea, tabakorik ez erretzea eta alkoholik ez edatea, eta kirola egitea osasuntsua direla baieztatzen dute, euren diotenez.



Mendaroko Ospitaleko Digestiboko-Zerbitzuko arduradunak zentroaren sarreran. / EKHI BELAR

2012/2013 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA
Batzilergoa: Maiatzaren Ziklo I/IIa arte
Heziketa Zikloak: Maiatzaren Ziklo Ekainaren Bira

BATXILERGOA
 (4.000.000) 2013/2014

- Zientziako Batxilergoa
- Zikloak: Maiatzaren Zikloak

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK
 (4.000.000) 2013/2014

- Informatika Zientziako Zikloak: Paralelismoa eta Zikloak
- Matematika Zientziako Zikloak
- Zientziako Zikloak: Kimika Zientziako Zikloak
- Zientziako Zikloak: Fisika Zientziako Zikloak
- Zientziako Zikloak: Biologia Zientziako Zikloak
- Zientziako Zikloak: Zientziako Zikloak

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK
 (4.000.000) 2013/2014

- Informatika Zientziako Zikloak
- Matematika Zientziako Zikloak
- Zientziako Zikloak: Kimika Zientziako Zikloak

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Zientziako Zikloak
- Zientziako Zikloak

EIBAR-ERMUA
 (EIB-ERU)

ETAKOLA HIRIBIDIA, 25. 48000 EIBAR (GIPUZKOA) - 943.30.00.44
 OIBARRA HIRIBIDIA, 25. 48000 EIBAR (GIPUZKOA) - 943.73.00.07
 WWW.EIBAR-ERMUA.COM

guztiak zientziako zikloak izan behar dituzte

Atzo arratsaldian presentau eben Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekuak, Udalarekin, Ikatzekin, Arrate Kultur Elkartearekin, Untzaga jubilau etxiarekin, El Ambigú eta Portalea tabernekin eta Euskal Herriko Argazkilaritza Alkartien Federaziñuarekin batera antolatu dabon Argazkilaritza Maiatzian. Honezkeror urteroko kalendarixuan argazkixak maitte dittuenendako zita benetan inportantia bihurtu dan honi esker goi maillako egillien erretratuekin gozatzeko aukera paregabia izango dogu hillebete osuan.

Aurten sei erakusketa presentauko ditue, herriko hainbat puntutan banatuta. Gaiñera, azken urtietako martxiari jarraituta argazki estudixua montauko dabe kalia eta programaziñuan "klasikua" dan argazki rallixan parte hartzera animau nahi ditue herritar guztiak.

Urteroko moduan, parte hartuko dabon argazkilari guztiak goi-maillakuak izango dira eta bakotxaren estiluarekin gozatzeko aukera paregabia izango dogu. Jose Benito Ruizen erakusketiak "Konposiziñuari buruzko hizketiak" izenburua dauka eta argazkilarixak berak diñuan, "ez-ohikua izango da, batez be hezitze ahalegiñarekin batera erakusteko nahixa be agertzen dabelako". Irudi guztiak Italian sortutako eta sorreratik bertatik egilliak beria egiñ eban Only RAW korrontiaren premiseri jarraituta egindakuak dira: "Bat bera be ez dot aldatu, kamariak hartu ebana, besterik ez dira, irudixari nibelak ajustau aplikautako kontraste arin bat salbu".

Kubaren inguruko ikuspegi bi erakutsiko deskuez Julian Ochoak eta Santos Moreno Villarrekin. Lehelenguarendako Kuba "paradisua" da argazkilari dokumentalarendako: "Ir-



Santos Morenores "Alma de Cuba".

Badator argazkixeri eskindutako maiatza



Jose Benito Ruiz.

lara birritan juan naiz biajian eta esperientzia ezinhobia izan da. Irudi bakotxari begiratuta espaziuan eta denboran atzera egitten dot eta burura etortzen jataz izenak, anekdotak, usaiñ eta bestelakuak, giza-kontaktuak bakarrik eragitten dittuan esperientzixa zerrenda amaigabia".

Santos Moreno Villar argazkilarixak "Kubako arima" izenburupian erakutsiko dittu bere lanak: "2010eko iraila eta urria bittartian Kuban egin doten azken biharraren emaitza dira argazkixak. Kubatarekin zuzen-zuzenian bizitzen egoteko aukeria euki neban eta eurak bi-zi dabon errealidadia lehen eskutik jaso neban. Hemezortzi egun, Santiago de Cuban hasi eta La Habanaraiño, Bayamo, Manzanillo, Camaguey, Morón, Santa Clara, Cienfuegos, Trinidad eta Pinar del Río ahaztu



Xabier Ferrer.

barik. Zuri-baltzian angular haundixarekin etaratako 50 bat erretratok osatzen dabe ikusgai ipiñiko doten bildumia".

Karibetik Europara bueltan

Eta Kubatik Poloniara salto egitteko aukeria eukiko dogu, Portaleko erakusketa areto-
tik mugitzeko premiña barik. Xabier Ferrer Chust argazkilarixak herrialde horretako komunitade ortodoxuarendako kulturako gunerik inportantiena dan Grabarkako santuari-
xuan hartutako irudixak erakutsiko deskuz.

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 4tik 27ra
PORTALEAN
JOSE BENITO RUIZ
"Diálogos sobre composición"
SANTOS MORENO VILLAR
"Alma de Cuba".
XAVIER FERRER CHUST
"Grabarka".

Maiatzaren 4tik ekaiñaren 3ra
TOPALEKUAN
JULIÁN OCHOA
"Cuba".

Maiatzaren 1etik 31ra
31. ARGIZAIOLA Lehiaketa
Klub Deportibuan
Deportiboko
ARGAZKILARITZA TALDEA.
El Ambigú eta Portalea tabernetan.

Maiatzaren 1etik 12ra
Deportiboko
ARGAZKILARITZA TALDEA.
Untzagako jubilauek etxian.

Tallarrak
Maiatzak 12
ARGAZKI-ESTUDIXUA KALIAN.
UNTZAGAN.

Maiatzak 18-19
JOSE BENITO RUIZ
"KONPOSIZIÑO INTENSIBUA"
PORTALEAN.

ARGAZKI-RALLIXA
Maiatzak 27
Zuribaltzian edo digitalian.
Urteeria Deporretik
(izen-eremotia egunian bertan,
08.30xetatik 09.30xetara).

Bielorruasiako mugatik gertu daguan elizia inguratzen urtero abuztuaren 19xan bertara juaten diran erromesak eruandako millaka egurrezko gurutze pillatzen dira eta eszenatoki horretan hartutako erretratuak osatzen dabe argazkilari honen erakusketia.

Erakusketa kolektibuetara salto eginda, Deporren 31. Argizaiola Lehiaketako lanak ikusteko aukeria izango da. Eta Argazkilaritza Maiatzian programiaren arduradun nagusixak diran Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekuak, euren lanak erakutsi ahal izateko, El Ambigú eta Portalea tabernak ez eze, Untzaga jubilauek etxeko erakusketa aretua be erabiliko dabe aurten. Bertan urte osuan atseden hartu barik argazkilaritza sustatzeko biharrian jarduten daben taldeko kidien lanak ikusteko aukeria eukiko dogu.

Tallarrak eta argazki rallixa

Programaziñuan, erakusketak ez eze, tallarrak, hitzaldixak eta rallixa be jaso dittue. Argazkilaritza digitaleko tallarra ("Argazki-estudixua kalian. Galerixa-argazkixak herrixaren bihotzian") Untzagan, kalian eskinduko da maiatzaren 12xan, 10.00etan hasi eta 14.00xak bittartian eta nahi daben guztiak eukiko dau musutruk bertan parte hartzeko aukeria, alde zurretik izena emoteko premiña barik.

Maiatzak 18 eta 19xan, barriz, Jose Benito Ruiz argazkilarixak konposiziñuaren gaiñeko tallarra eskinduko dau Portalean: lehelengo egunian ikus-entzunezkuen proieksiñua eta natura-argazkilaritzaren gaiñeko berbaldixa



Jose Benito Ruizek konposiziñua landuko dau batez be.

eskinduko dittu, 19.00etatik 20.00etara eta bigarren egunian, 10.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.00etara konposiziño intensibua lantzeko aukeria egongo da.

Parte-hartzia musutruk da, baiña plaza mugatuak diranez, aurretik izena emon bihar dabe juateko interesa dakenak, argazkilaritza@deporeibar.com helbidera e-maila idatzitta. Gaiñera, egilliak "Paisajes del mar" bere azken liburuaren presentaziñua egitteko aprobetxauko dau Eibarrera bisittia. Eta urteroko moduan, argazki rallixarekin agurtuko dabe programaziñua, maiatzaren 27xan.

Otaola etorbidea, 3 - atzea (Hiper Eroskiren alboan)

Iruki
Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44
irukieibar@hotmail.com
www.irukieibar.com



GAZTEMENUA

barixaku gauetan
txotxa eta garagardoa barne

DENA
18 €
BARNE



Entsalada mixtoa edo
Bakailao tortila edo
Bakailao konfitatua

Txerri-saiheskia parrillan edo
Ollasko errea parrillan edo
Okela gisatua

(Hirurak patata goarnizioarekin)

Gaztaia, intxaurrek
eta membrilloa

Ogla, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa

F
Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Bellatokia Funeuskadi Eibar | Bulegoa: Eibarrerria, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
SERVICIOS FUNERARIOS

Eibar - Dunoeta - Bilibero - Barakaldo - Leiza - Getxo - Gernika - Portugalete - Santurtzi - Galdakao - Sodupe - Espinosa de los Monteros

TEEN- AJEA



Gitarra astunak, bateria doinu azkarrak, metala zainetan. Untzaga plazak heavy dosia hartuko du datorren asteburuan. Damudot izango da eszenatokiaren gainean beste hainbat talderekin (MP5, Su Ta Gar eta Oihan Yega) egingo den ikuskizunean, eta Dani De la Torre eibartarra da talde horretako gitarrajolea.

DANI DE LA TORRE (Damudot):

“Taldeko giro ona musikan igartzen da”

- Datorren asteko zapatuan, maiatzaren 5ean, kontzertua eskainiko duzue Untzagan. Nola sentitzen zara horren aurrean?

Ondo. Lehenengoz joko dugu Eibarren eta berezia izango da. Urdukitasun pixka bat sentitzen dut. Nire herrian kontzertua eskaintzeak, Untzagan gainera, gogo handia ematen dit.

- Su Ta Gar ere egongo da Untzagako kontzertuan. Gainera, Aitor Gorosabelek zuen diskoan kolaboratu du. Nola izan da esperientzia?

Oso ona. Zer egiten duen oso ondo dakien pertsona da Aitor eta guretzat pribilegioa izan da berak gure diskoan parte hartzea.

- Lehen diskoa izan da zuentzat. Zelako ‘erditzea’ izan du?

2006an maketa egin genuen, baina hau izan da lehen diskoa. Datorren astean edukiko dugu eskuragai, eta dena ondo joango den esperantza daukagu. Nork daki, ikusiko dugu ea zer gertatzen den.

- Noiz sartu zinen Damudot taldean?

Orain dela urte bi. Ekinicio taldean gitarra jotzen nuen eta Damudoteko Jon abeslaria ezagutzen nuen. Gitarrajole bila zebiltzala esan zidan eta ea eurekin jo nahi nuen. Horrela, Damudoteko kide egin nintzen. Bestetik, Ekinicio laga behar izan nuen, talde bitan ibiltzea zaila egiten zitzaidalako.

- Nola aurkitzen zara talde barruan?

Oso gustora, pozik. Giro polita dago taldean eta hori oso garrantzitsua da. Taldeko giro ona musikan igartzen da. Gure artean haserreak egongo balira, gauzak ez liriateke guk nahi bezala irtengo.

- Diskoa kaleratuko duzuela-eta, bira egitea aurreikusten duzue?

Eibarkoaz gain, Ermuan Vertigo Rock jaialdian kontzertua eskainiko dugu maiatzaren 19an. Gero, Bilbo aldean ere ibiliko gara eta, hortik aurrera, ikusiko dugu ea zer gertatzen den. Espero dezagun horri jarraitzea.

aldatze

www.aldatze.org

Indianokua gaztelekuak urtea bete du


Errota atzean laga eta izen berriarekin, kokaleku berriarekin eta instalazio berriekin zabaldu zen Indianokua Gaztelekua 2011ko apirilaren 26an. Asmoa, hala ere, berbera zen: gazteek euren aisialdiaz gozatzeko tokia edukitzea. Asteburu honetan ospatuko dute lehen urteurrena.

Urtebete besterik ez dauka, bizitza osoa aurretik, baina herrian betetzen duen lekua handia da, gaztetxoentzat behintzat. 12 eta 17 urte bitarteko neska-mutilak biltzen dira bertan, "batez ere asteburuetan", Gaztelekuko Anartz Mitxelenak dioenez, "astegunetan, normalean, Errotara etorri eta ohitura hori hartu zutenak etortzen dira batez ere".

Urteurren egunean, atzo,

'gazte-pintxo' egiteko ekimena eskaini zitzaion 12 eta 17 urte bitarteko gazteei. Horrela, arratsalde gozoa pasatzeko aukera izan zuten neska-mutilak pintxo artean. "Aurretik 14 eta 17 urtekoekin egunetan egiten saiatu ginen, baina ez zuen arrakastarik izan. Orain, hilean barixaku batean egiten ahaleginduko gara".

Ospakizun nagusia gaur egingo dute eta Lost Souls break-dance taldeak ikuskizuna eskainiko du Indianokuan 19.00etatik aurrera. Iaz DJ Jon-ek eman zion ongietorria Gaz-



Indianokua iazko apirilaren 26an inauguratu zuten. / SILBIA HERNANDEZ

telekuari, eta aurten break-dance talde eibartarrak ipiniko dituzte gazteak dantzan. Dantzariak 20 minutuero egingo dute dantza eta, bitartean, bertan batu direnei break-dance nola egin erakutsiko die. Ondoren, hainbeste dantzaren ostean indarrak berreskuratzeko, merendola egingo dute.

Jende gehiago

Anartz Mitxelenak adierazi duenez, "Errota Gaztelekura

baino jende gehiago etortzen da Indianokura. Batez ere nesken presentzia igo da, lehen ez zetozelako hainbeste". Play Stationa eta Wii konsolak astean egun bitan, 6 ordenagailu, futbolina, ping-ponga, sukaldea ("oso ondo dago"), pelikula ikusteko proiektadorea, WIFla... "Indianokua Errota baino askoz ere hobeto dago, oso ondo dago lekua eta, gainera, herriaren erdialdean dago". Urte askotarako!



Alemaniarra joandako ikasleen taldea.

Uni-koak Alemanian eta Frantzian

UNI EIBAR-ERMUAKO IKASLEEK ATZERRIKO IKASTETXE BIREKIN ELKARTRUKEA egin dute azken asteotan. Martxoaren 10 eta 17aren artean Frantziako Luçon herriko Lycée Atlantique ikastetxeko ikasle eta irakasleen bisita jaso zuten eta, 22tik 29ra, Alemaniako Albstadt hiriko HWS Albstadt ikastetxekoak izan ziren gure herrian.

Bai frantziarrek, bai alemaniarrek, Euskal Herrian zehar hainbat irteera egiteko aukera izan zuten, eta Uni-ko hainbat klaseetara eta inguruko hainbat enpresatara joateko aprobeztatu zuten egonaldia.

Uni-koak martxoaren azken astean joan ahal izan ziren Luçonera, eta hainbat bisita kultural egiteaz gain, hezkuntza ekintzak egin zituzten Frantzian. Bestetik, beste ikasle eta irakasle talde bat joan den eguaztenean bueltatu zen Albstadtetik.

MANU GOIGONA eta AITOR ERRAZKIN

IRUN

MAIATZAK 4
BERTSO-AFARIA
21.30etan

BIDE-ALDE SOZIEDADEAN



IZENA EMATEKO AZKEN
EGUNA: MAIATZAK 2

AIMAR GOENAGA eta MIKEL MUJICA

EIBAR

SARRERAK
...ETA KITTO!-n
19 € (bazkideak 16)


AUTOEN gehigarria



Gidatze eraginkorrak ke gutxiago sortzen du

INGURUMENA GERO ETA GEHIA-GO ZAINTZEN DUGU GAUR EGUNGO GIZARTEAN eta ingurumenara jaurtitzen dugun CO2 kopurua jaitea helburua nagusia da gaur egun munduko herrialde guztiendako. Gainera, erregaiaren prezioak gure ekonomian duen eragina eta munduan gero eta petrolio gutxiago egoteak ere zer esan asko dihardu ematen azken al-dian. Horri guzti horri aurre egiteko, gasolina gero eta gutxiago erabiltzen duten autoak prestatzen dihardute auto ekoizleek eta bestalde auto elektrikoek merkatua gero eta handiagoa da.

Auto elektrikoek salmentak gora egin du azkenengo urteetan: gero eta leku gehiagotan sortu dituzte auto elektriko-



ak kargatzeko guneak. Gasteiz eta Araba ezaguna da auto elektrikoaren eta hiri-herrialde berdea izateko egiten diharduen lanean. Baina zer gertatzen da beste autoekin? Ezin dugu ezer egin gure autoak isurtzen duen kea ahalik eta gutxiago izateko?

Kontuan izan behar da gaur egun erabiltzen edo sortzen dugun CO2aren %40 autoenda dela. Munduan erabiltzen den petrolioaren %60 autoek erabiltzen dute. Beraz, argi dago gidatzeak duen eragina guzti horretan. Jakitunek behin eta berriro dihardue esaten: auto elektriko eta abarrak egiteaz gain, gidatze eraginkor bat bultzatu beharra dago, bakoitzak ahal duen guttia egin dezan kea kontrolatzeko orduan.



	AUTO Aurrera	KONPONKETAK
<ul style="list-style-type: none">● Mekanika - Elektrizitatea● ITVrako errebisioak● Frenoak - Amortiguazioa● Mantenimendua - Erroberak		
Urtzaile, z/ g Telefono eta Faxa: 943 20 80 65		20600 EIBAR (Gipuzkoa)

	ZURICH Lejardi S.L Aseguru Agentzia Tel 943201149 Plaza Barria 8 Eibar
--	--

Helburua lortzeko badaude jarraitu daitezkeen hainbat ideia, baina hori aurretik azpimarratu beharra dago ingurumenarendako ona izateaz gain, gidariarendako ere eraginkorra izatea oso onuragarria dela. Bost dira horrelako gidatzeak guregan izango dituen eragin zuzenak:

- Istripuak eukitzeko aukera txikiagoa izango dugu gidatze eraginkorra eginez gero, eta istripua izanez gero, larritasuna txikiagoa izango da.
- Gidatzea erosoagoa da.
- Erabiliko dugun erregai kopurua txikiagoa izango da, beraz, aurreztu egingo dugu.



- Autoaren mantenua (gurpilak, balaztak...) merkeagoa izango da. Gurpil, balazta eta abarrek bizi luzeagoa izango dute.

- Ke gutxiago isurtzen badugu, guztiok arnasten duguna garbiagoa izango da.

Eta zer egin dezaket, beraz, horrelako gidatze bat egiteko? Horrelakoak aztertzen ibili dira behin baino gehiagotan bai auto ekoizleak eta baita gidari elkarteak eta hainbat dira kontuan izan beharrekoak:

- Autoa abiarazten dugunean ez sakatu azeleratzailea.
- Auto barruan sartuko dugu eraman beharreko guztia. Sabai gaineko ekipaje tokiak eta abar asko zabaldu dira, baina beharrezkoa ez bada ez dugu erabiliko. Izan ere, horrek autoak haizeari egiten dion erresistentzia handitzen dio, beraz, gehiago kontsumitzen du.
- Martxa luzeak eta autoak duen minutuko bira kopurua ahalik eta baxuena izango da. Gasolina autoetan 2000 eta 2500 bira minutukoa da egokiena, diseletan, berriz, 1500 eta 2500 bira minutuko.



- Lehenengo martxa autoa abiarazteko baino ez dugu erabiliko, hau da 2 eta 6 segundo artean asko jota. Jarraian sartuko dugu bigarren martxa. Hirugarrena 30 km ordukora ailegatzera koan sartuko dugu, bataz beste; laugarrena 40 km ordura eta bosgarrena 50 km ordutik gora.

- Leihoak itxita gidatu.
- Autoa minutu bat baino gehiago geldiegon behar bada, hobe da motorra itzaltzea.
- Abiadurari eutsi ahal dela, aldaketa nabarmenik ez egin.
- Balaztak neurrian erabili, frenazorik ez egin.

Guzti horri legeak ezartzen dituen arauak betetzeak lagundu egiten du gidatze eraginkorrean. Auto berria erostez gain, honek guztiak kontuan izanda, ke kopurua txikiagoa izango da.

SEGUNDO AUTOAK

ZABALDU BERRIA
Tailer mekanikoa
IAT-ra eramaten ditugu autoak
Denetarik mekanika

SEGUNDO AUTOAK

Armagin kalea, 8 - AC (Urki, 31 - behea)
tel/fax: 943 53 08 70 segundoautoak@gmail.com

Tailer profesionalak

GASOLEOEN BANAKETA

Otaola etorbidea, 13-Bis **GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA**

Tfnoa. 943 20 73 74 Faxa. 943 20 70 91

R.A.C.V.N.-ren ordezkari-tza

BIDAIA ASEGURUAK

J.A. LASKURAIN

ASEGURU ARTEKARIA S.L.

D.G.S. 1.408 - J


ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87 EIBAR

Emakumezkoen nazioarteko Eibarko XVII. judo torneoa Ipuruan

BIHAR, ARRATSALDEKO 16.00-ETAN HASITA, EMAKUMEZKOEN EIBARKO XVII. TORNEOA JOKATUKO da Ipurua kiroldegian. Nazioarte mailako lehiaketa horretan, Frantziako eta Andorrako judo-kekin batera, estatuko hainbat herrialdetako ordezkari izango dira (Madril, Errioxa, Kantabria, Aragoi), Nafarroako eta Euskadikoekin batera.

Azken asteburuan, bestalde, emaitza bikainak lortu dituzte Kalamua klubeko ordezkariak Andorrako torneoan: juniorretan, Kalamuakoek osatu zuten podiuma, Adrian Riaño, Eneko Lores eta Julen Ramónekin; kadeteetan, Nekane Muguruza eta Julen Ramón nagusi izan ziren, nesketan zein mutiletan; alebinetan, Roberto Riaño eibartarra izan zen onena.



Nekane Muguruza Andorrako torneoan ere podiumaren goialdean izan zen.

Arakistain pilotoa CM Silver-Car batekin jardungo du

HERENEGUN EGUERDIAN AURKEZTU ZUEN AITOR ARAKISTAIN AUTO PILOTOAK Mendiko Euskal Txapelketa osoan erabiliko duen CM Silver-Car prototipoa. Txapelketa horretako lehenengo proba jokatu da bihar Oñatin, Udanako igoeran, eta azken bost urtetan Espainiako txapelketan garaile izan den barketa motako autoa erabiliko du Arraten irabazteko gai izan den eibartar bakarrik. Modelo horrekin monoplatzetako lidergoaren bila jardungo du Arakistainek, Aitor Zabaleta eta izen handiko beste aurkari aurrez-aurre izango duen arren.



Escuderia Eibarko ordezkariak Ñañarri Rallysprint-ean

Sei ordezkari zituen Eibarko eskuderiak Ander Aranek irabazitako proban, baina lauk bakarrik amaitu zuten proba: Jorge Rodríguez 16.a izan zen Clio Sport batekin, Omer Artaloitia 24.a, Cristian Pérez 41.a eta Alex Velascok 43. postuan amaitu zuten.



Alebin eta infantil mailako Eibarko ordezkariak asteburuan Bergaran irabazitako diplomekin.

Gimnasia erritmikoko Gipuzkoako txapelketa Ipuruan

EIBARKO IPURUA KLUBAK HITZORDU GARRANTZITSUA DU DOMEKAN, ETXEAN jokatu baitu Gipuzkoako federatuen banakako txapelketa. Noelia Bedia eta Irati Yarza izango dira etxeko ordezkariak Ipurua kiroldegian. Junior mailako txapelketan hartuko dute parte, lau aparatuekin (pilota, uztaila, zinta eta mazak). Txapelketa domekan jokatu da Ipurua polikiroldegian 10:30tik aurrera.

Eskolarteko txapelketari dagokionez, aurreko asteburuan

B mailako 2. fasea jokatu zen Bergaran, Ipuruako bi taldek finalerako txartela eskuratu: Elene Varelak, Teresa Miguelek, Malen Txurrakak, Naroa Hurtadok eta Enara Zufiriak osatu zuten alebin mailakoak eta Miren Bastidak, Nerea Dezak, Arrate Barojak, Lorea Armendarizek eta Paula Laskurainek osatutako infantil mailakoak. Gipuzkoako Banakako Eskolarteko final horretan, bestalde, Ipuruako launa ordezkari izango dira aipatutako maila bietan.

Hiru domina Gipuzkoako atletismo txapelketako lehen jardunaldian

ALEBIN ETA INFANTIL MAILETAKO PROBINTZIAKO ATLETISMO TXAPELKETEN LEHENENGO JARDUNALDIAN, hiru domina

eskuratu zituzten Eibarko Klub Deportiboko atletak: Markel Gutiérrez onena izan zen marxa modalitateko 3.000 metrotan, Andoni Egurrola bigarren sailkatu zen jabalina jaurtiketan eta Maider Díez Urriaga -hau ere jabalinarekin- hirugarrena izan zen. Tolosan jokaturako jardunaldi horretan Elena Susaeta eta Amaia San Martín alebinetan eta beste zortzi ordezkari infantil mailan ere izan ziren.




Irudiaren eskuman, Maider Díez Eibarko Klub Deportiboko ordezkaria.

Udarako izen-emateak zabaldu ditu Eibarko Kirol Patronatuak

MAIATZAREN 7-AN HASI ETA HILABETEA AMAITU ARTE EGIN AHAL IZANGO DUTE AURREINSKRIPZIOA kiroldegiko udako kanpainan multiaktibitateetan parte hartu nahi dutenek, tartean igeriketa ikastaroak egin nahi dituztenek. Azken hauen kasuan, umeentzako ikastaroak zozketa publikoaren bitartez antolatuko dira, abonatuak lehenetsuta izango badute ere. Helduen kasuan, izen-ematea ekainaren 1etik aurrera egin dezakete idazkaritzan zuzenean. Aurretik, baina, aurre-inskripzio egin beharko dute (Ipuruan, Orbean edo www.eibarkirola.com orrian). Zozketa, bestalde, ekainaren 1ean egingo da eta 4an jakinaraziko dira horko emaitzak, 16.00etatik aurrera. Inskripzioak ekainaren 11tik aurrera egin ahal izango dira eta ikastaroak ekainaren 27an hasi eta uztailearen 24an amaituko dira.

Tenisean jardun nahi dutenek ere aukera izango dute Unbe kirolgunean jarduteko ekainaren 27tik uztailearen 22ra arte. Bazkideek astero 20 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 30. Izen-emateak Ipuruan eta Unben egiteko aukera izango dute interesatuek, maiatzaren 16tik aurrera.



Igeriketa ikastaroak sasoi berezia izango dute uda aldean, ohikoa denez.


Tenis modalitateak gero eta indar gehiago dihardu hartzen.



Asier Cuevas 4.a izan zen 100 kilometroko Mundialean

AZKEN KILOMETROAK SOBERAN IZAN ZITUEN ATLETA EIBARTARRAK,

ordura arte bikain jardun baitzuen Italiako Seregno herrian jokaturako munduko txapelketa gogor horretan. Cuevasak lehenengo postuan jardun zuen hainbat kilometrotan eta, ondoren, kilometro gehienak 2. postuan egin zituen, hamar kilometroren faltan hirugarrenari 7 minutuko aldea kenduz. Baina proban izan zuen tenperatura



Oso nekatuta heldu zen helmugara Eibarko ordezkaria.

altuak eta nekeak deshidratazioa eragin zioten eta "azken hogei minututan 25 aldiz geratu behar izan" zuela adierazi du eibartarrak. Klub Deportiboko atletak, dena dela, lasterketa ausarta egin du, inoren erreleboei itxaron barik. Hala ere, podiuma gertu izan arren, ezin izan ditu asmoak burutu eta Espainiako marka hobetzea bes-



te baterako geratu da. Oraingoan 6 ordu eta 44 minutu behar izan ditu distantzia egiteko, irailan Espainiako txapel-dun irten zenean baino sei minutu gehiago.

SENPERE_n maiatzaren

13^{an}



IRTEERA
09.30

9 euro

BUELTA
19.30

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte ...eta kitto! Euskara Elkarte

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik osasun zentru eta etxeetan egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 FAX: 943 202564



● tartak
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Tekniker Eibar Eskubaloia Euskadiko txapelduna

TXAPEL HORI IRABAZI ZUEN AURREKO ASTEBURUAN KADETE MAILAKO Eibar Eskubaloiko taldeak; horrez gain, Mikel Guerra taldeko atezainak denboraldiko Euskadiko jokalaria onenaren saria irabazi zuen. Eibartarrek Zarazpe Pulpori 32-23 irabazi zioten barixakuan, Bidasoari 25-20 zapatuan eta Tolosari 35-30 domekan. Titulu hori irabazita, Espainiako txapelketako sektore faserako txartela lortu dute Fernando Fernándezek prestatutakoek. Talde horrek liga Territorial mailan hasi badu ere, Euskal Ligara igo da eta Espainiako txapelketara heltzea lortu du. Ez da bakarria izan Eibar Eskubaloian: jubenil mailakoek ere Euskal Ligarako igoera baiezatu dute. Somos Eibar Eskubaloiak talde nagusiak, bestalde, 29-31 irabazi zuen Usurbilen eta gaur Arrasate hartuko du Ipuruan.



...

Ruibalek lehen postua ziurtatu du

EZ ZEN DENBORALDIKO PARTIDURIK ONENA, BAINA HALA ERE Ruibal saskibaloitza taldeak garaipena eskuratu zuen (64-53) Oiartzungo Saskilagunak-en aurkako partiduan. Emaizta horrekin, mailaz igotzeaz gain, sailkapeneko 1. postua ziurtatu dute eibartarrek. Arnaiz eta Azurmendi izan ziren saskiratzaile onenak, 17na punturekin. Partidu bi besterik ez dira falta liga amaitzeko: hurrengo neurketa Altzan izango du bihar.

Anetxek ezin Ingenieros gainditu

EIBAR HIERROS ANETXE ERRUGBI TALDEAK denboraldia agurtu du Ingenierosekin jokatutako Espainiako Txapelketarako finalerdian Unben ere galdu eta gero (24-35).

Kiroljokoa Trofeoa maiatzaren 6an

AURREKO ASTEBURUAN AMAITU ZEN FOBALL-ZALETUKO Euskal jokoa Liga (Koskor izan da garaile) eta, maiatzaren 1eko zubi hau pasata, maiatzaren 6an jokatuko da Zaldibarren, 10.00etan hasita, Kiroljokoa Trofeoaren 2. edizioa Ermuko irabazlearekin.

Asteburu betea herriko pilotarientzat Udaberri torneoan

EIBARTIK KANPO ZAZPI PARTIDU JOKATUKO DITUZTE GURE HERRIKO PILOTARIEK. Eta beste bost izango dituzte etxean, Astelena frontoian eta Ipuruako kiroldegian banatuta. Horrela, gaur 20.00etan hasiko den jaialdian, Katedralak buruz-buruko hiru partidu hartuko ditu: jubeniletan, Andonegik Zegamako Conderi egingo dio aurre; jarraian, seniorretan Gaizkak beste zegamar bat izango du aurrean -Agirre-; eta, amaitzeko, Agirresarobe jubenila Etxabe



zumaiarra gainditzen ahaleginduko da. Bihar, bestalde, partidu bi jokatuko dira kiroldegian: lehenengoan, Narbaitza kadetea Debako Almorzarrekin lehiatuko da eta, jarraian, Larrauri jubenilak Añorgako Ipintza makurtzen saiatuko da. Neurketa guztiak lau eta erdiaren barruan jokatuko dira.


Eibarrek bihar jokatuko du Tajonarren

FRESKOTASUN HANDIRIK EZ ZAIO IGARTZEN MANIX-EK ZUZENTZEN DUEN taldeari ligako azken fase honetan; horrela, aurreko domekan ere ezin izan zuen berdinketa baino gehiago lortu Palentziaren aurka Ipuruan (2-2). Hala ere, hiru jardunaldiren faltan, bost puntuko tarte du Alavésékiko, abantaila nahikoa izan daitekeena. Bihar Osasuna Promesas izango du aurkari, Iruñeko Tajonarren 18.00etatik aurrera jokatuko den norgehiagokan.



Engimek-en suspentsio-multzoak prest Abarth Koparako

EUSKADIKO AUTOMOBILISMO FEDERAZIOAK ETA IBAUTOK (Fiat-Abarth-eko banatzaile ofiziala) antolatzen duten Abarth Punto



to Evo I. Kopan parte hartuko duten autoentzako lehen suspentsio-multzoak prestatu ditu Engimek Eibarko enpresak. Sei multzo eskaini dituzte honetako, lehen sei parte-hartzaileentzat.



AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7



Astelehenian, apirillaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu genduan. Oñ arte liburu berbia esanda modu txukunaguan edo apalaguan enkuadernautako orri-multzoa etortzen jakun burura, baiña gero eta gehixago hedatzen dihardue formato elektronikuan, pantallan irakortzeko moduko liburuak. Baiña zeintzuk dira maittiaguak irakorlien artian?

Liburu elektronikua ala papelian inprimidutakua nahixago?



ROCIO FLORES
30 urte
medikua

Irakorri biharrekuaren arabera, kasu batzuetan erabilgarria izan leikiala begittantzen jata. Halan-da be, liburu elektronikuk erosi egin bihar dira eta horrek gastua dakar, ez dot uste merkia izango danik.



JESUS BELAUSTEGI
65 urte
jubilaua

Ez dot liburu elektronikorik probau, baiña etekiña etaratzeko zezer dala begittantzen jata. Edozelan be, betiko liburua baiño askoz hotzagua, betetzen ez zaituan zezer dala pentsatzen dot.


JOSE ANTONIO CASTELLÓN
65 urte
jubilaua

Elektronikua ez dot probau, baiña edozelan be betidanik ezagutu izan dogun liburuari beste xarma bat topatzen detsat, ez dot pentsatzen elektronikua papelezkua ordezkatzera aillaguko danik.



MARIA ORMAETXEA
22 urte
ikaslia

Liburuak beti papelian irakorri izan dittut. laz derrigortuta liburu bat interneten, ordenadorian irakorri bihar izan neban eta nahixago dot papela, pantallan irakortziak bistia gehixago kantsatzen dau.



EGOITZA NAGUSIA
Bilaberritoa 20 - behea, eskuma

MUGICA FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errusketako labora

Egokorren (lugarreko) mugica

Partikular - eskua eta mugica erosi zerbitzuak

Koizki - Eskala - Urteurrenko eskala

Eskala Mugica eskala eskala eskala eskala

Nazioa eta Nazioarteko zerbitzuak

Mugica Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

OTEGUI
HARATEGIA

Etxeko plater kozinatu eta aurrekozinatuak

Mobila. 652 77 25 42
Telefona. 943 82 05 24
Urkizu, 28

Orain zaldikia (moxala)

ere badugu

Iaz hasita ia kontinente guztietan zehar egin duen biraren ostean, Jairo Zavala, edo Depedro, Eibarrera dator 'Nubes de Papel' albuma zuzenean aurkeztera. Mundu osoan zehar bere lanarengatik loreak jaso ondoren, Coliseoan bere musikaz gozatzeko aukera egongo da maiatzaren 4ean, 20.30etan hasiko den kontzertuan.



JAIRO ZAVALA "Depedro": "Ustekabean hasitakoa trinkotu egin da"

- *Herrialde askotan ibili izan eta gero, birako azken kontzertuetako bat da Eibarkoa. Nolako errepasoa egiten diozu birari?*

Oso positiboa izan da dena. Ustekabean hasi zena, gauza trinkoa bilakatu dela berresten du.

- *Hainbat lekuren artean, Australian urte amaierako kontzertuan aritu zinen. Nolako esperientzia izan zen?*

Udan Gabonetako apaingarriak ikustea arraroa da, eta urte berria ospatzeko Ozeano Indikoan bainua hartzea demasekoa izan zen. Bigarren aldia da hara noana eta uste dut ez dela azkena izango.

- *Nolako soinua du Depedrok?*

Ezaguna egiten zaizu, aurretik entzun duzula ematen duelako. Ingurumariko musika egiten dudala diote batzuk. Kutsu mediterraneoa dauka, Amerikako kantutegiaren zorduna da iparraldetik hegoaldera Afrikako zapore pixkatekin, irabiatua baina ez nahastua, erreferentzia zinematografikoa egitearren, John Barry, Ennio Morricone eta Lalo Schiffrin inspirazio handia izan direlako niretzat.

- *Loreak toki guztietatik etorri zaizkizu ("urteko gozamenetarikoa bat", dio Billboard Magazineko Fred Millek; "Depedroren mundua genero, melodia zoragarri eta abesti hunkigarrien nahasketak arraro eta eder horietarikoa bat da", dio Caalexico taldeko Joey Burnsek). Nola hartzen dituzu?*

Beti da atsegina gauza atseginak entzutea, eta proiektu honekin aurrera jarraitzeko gogoia ematen didate.

- *Nolako izango da Eibarraren eskainiko duzun kontzertua?*

Banda guztiarekin egongo naiz eta luxuzko gonbidatua izango dugu, Geva Alon, Israelgo artista oso interesgarria. Bere talentua eskaintzeko batu da taldera kontzertuan.

- *Gauza da ez zaudela geldirik, udazkenean disko berria kaleratuko duzula adierazi baituzue. Zerbait aurreratuko diguzu?*

Tira, ez dakit udazkeneako prest egongo den. Dakidana da berehala hasiko naizela lanean eta oso sentsazio onak ditudala. Sorpresaren bat egongo dela aurreratu dezaket.



Bertsotan jardun zuten Legarren

Zapatuan bertso-bazkaria egin zuten Legarreko Jai Batzordeak antolatuta. Bertsotan Arabatik etorritako Juan Mari Juaristi, Felipe Zelaieta eta Alberto Martinez izan ziren, Mikel Arrillaga eibarrarekin batera. Gai-jartzailea, berriz, Asier Ibaibarriaga izan zen. Antolatzaileen berbetan, "oso giro onean joan zen bazkaria. Bertso saio polita entzun genuen eta ondoren Felipe Zelaietaren gitarrarekin kantuan amaitu genuen denok, egun zoragarria pasatuta". Bertako zozketan saritutako zenbakiak, bestalde, 496 (1. saria) eta 839 (2. saria) izan ziren.

Irun eta Eibar bertso-desafioan

Eibar eta Irun aurrez-aurre, bertso-desafioan ikusteko aukera izango da maiatzaren 4an Bide-Alde elkartearen, ...eta kitto! Eus-

kara Elkarateak antolatutako bertso-afarian. Irun ordezkaturiko duten bertsolariak Manu Goiogana eta Aitor Errazkin izango dira eta Eibarko ordezkariak, berriz, Aimar Goenaga eta Mikel Mujika. Joan nahi duenak maiatzaren 2ra arte izango du sarrera erosteko aukera, ...eta kitto! Euskara Elkartera gerturatuta (Urkizu 11, solairuartea). Prezioa 16 eurokoa izango da bazkideentzat eta 19 eurokoa, berriz, bazkide ez direnentzat.



Liburutegia kalean Liburuaren Egunean

Astelehenean, apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu zen eta, horren harira, Juan San Martin Liburutegia kalea irten zen, bertako eskaintza herritarrei bertatik bertara eskaintzeko asmoz. Liburutegiko arduradunak udaletxeko arkupeetan izan ziren goiz eta arratsaldean, euren zerbitzuen inguruko azalpenak ematen.

Eguenean hasiko dira Santa Kurutzeko jaiak

MAIATZAREN 3-AN, SANTA KURUTZ EGUNEAN, EKINGO DIOTE BERTAKO JAI BAZORDEKOEK eta udalak antolatutako jaien egitarauari, 17.30etan egingo den kanpai-errepikarekin. Jarraian, 18.00-etan meza ospatuko dute Santa Kurutzeko ermitan, urtean zehar Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Hala ere, ospakizun nagusiak hurrengo asteburuan pilatu dituzte: maiatzaren 5ean, besteak beste, meza, Juan Mari Narbaiza bertsolariaren eta Jone Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilariaren saioak, umeendako jolasak eta auzoko gazteek prestatutako jokoak hartuko



ditu Santa Kurutzeko ermita inguruak. Eta 14.30etatik aurrera, ohikoari jarraituta, Ixua jatetxean bazkaria eta ondoren erromeria egingo dituzte (bazkarirako txartelak Ixua ja-

tetxean daude salgai). Jaiak domekan, maiatzaren 6an jarraituko du, mezarekin, Kezka dantza taldeak egingo duen soka-dantzarekin eta haurrentzako jolasekin.


La Oreja de Van Gogh-en kontzertu jendetsua

ASTELENA FRONTIOAK JENDEZ GAINEZKA EGIN ZUEN ZAPATUAN, LA OREJA DE VAN GOGH talde ezagunak "Cometas en el cielo" bere azken diskoa aurkezteko eskainitako kontzertuan. Jai Productions enpresakoek antolatutako ekitaldia benetan arrakastatsua izan da oraingoan, aurrealmenta zabaldu eta berehala sarrera guztiak saldu baitziren, kontzerturako aste asko falta zirenean.



Armeria Eskolak kontzertua antolatu du

MENDEURRENA OSPATZEKO PROGRAMAZIOAREN BARRUAN, ARMERIA ESKOLAK KONTZERTUA antolatu du maiatzaren 5erako Untzagan: 21.00etan Emepebost taldeak jardungo du, 22.30etatik aurrera Damudot-ek, gauerdian Su Ta Gar taldekoak izango dira "Ametsak Pilatzen 2012" biraren barruan eta 02.30etatik aurrera Oihan Vegak jardungo du.



laburrak

DANBORRADARAKO ENTSEGUAK

Umeen danborradan irten nahi dutenek orain aste pare bat ekin zieten entsegueri eta datorren astean, maiatzaren 2an helduendako entseguak hasiko dira. Aurrerantzean, eguaztenero egingo dira entseguak: umeena 19.00etan izango da eta helduena 20.00etan. Biak Bittor Sarasketa kalean Udalak duen lokalean (Beistegi eraikinean) izango dira.

EGUN PASA BERBETAN-EKIN

Donostiara eguna igarotzera joango dira Berbetan egitasmoko berbalaguna maiatzaren 12an, zapatuan. Joan nahi dutenek ...eta kitto! Euskara Elkartearen zuzenean eman dezakete izena (Urkizu, 11) edo 943200918 telefono zenbakira deituta.

HERRI URRATS

Maiatzaren 13an ospatuko da Herri Urrats Senperen eta J. A. Mogel ikastolako Gurasoen Elkarteak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak bertara joateko autobusa antolatu dute. Irteera 09.30etan izango da eta buelta 19.30etan. Txartelak 9 eurotan daude salgai ...eta kitto!-ko bulegoan.


Haurreskolak Partzuergoko HAUR HEZKUNTZAKo zentroetan
0 eta 2 urte bitarteko haurren **IZENA EMATEKO** epea:

**maiatzaren
2tik 11ra,
biak barne**



Eibarko Haurreskolak
Orbea / Arrateko Andra Mari / Amaña

Eskaerak haurreskolan bertan lagako dira.
Informazio gehiago: www.haurreskolak.net



Beste batzuren artean, dantza irakasleak, musikariak eta dantzazaleak izan ziren ekitaldian. / LEIRE ITURBE



Euskal Dantzaren Adierazpena sinatu da

ZAPATUAN BIZKAIA, ZUBEROA, NAFARROA, LAPURDI, ARABA ETA GIPUZKOAKO DANTZARIEK, dantza irakasleek, musikariak eta dantzazaleek adostutako Euskal Dantzaren Adierazpena sinatzeko ekitaldia hartu zuen Udaleko pleno aretoak, Eibarko udalbatzako kideen parte hartzearekin. Euskal Herriko ehun taldetik gora bildu ziren Eibarren Euskal Dantzaren Adierazpena sinatzeko eta, agiria sinatu ondoren, txakolinaren topa egin zuten. Jarraian, eta Eibarko Bonbardaketaren 75. urteurrenaren testuinguruan, soka-dantza dantza egin zuten udal-etxeke patioan eta Iruki sagardotegian egindako bazkariarekin amaitu zuten ekitaldia. Zapatuan sinatutako adierazpenak hiru puntu nagusi ditu: lehenengoan “euskal dantza tradizio-

nalaren ondare izaera aitortzen” du-te, “hori zaintzeko ardura, dantzari eta dantzazaleekin batera, gizarte, komunikabide eta erakundeekin partekatzeko nahia” agertzearekin batera. Bigarren puntuan, berriz, “tradi-ziozko musika, kantu eta dantzak, eta horien aldeko ikasketa, transmisioa, zabalkundea, ikerketa, artape-na, babesa eta sustapenean lan egi-ten duten dantza talde, elkarte, era-kunde eta norbanakoak balioetsi” nahi dituztela jaso “eta bide horretan laguntzeko kultur politikak beharrez-koak direla” adierazten dute. Hiruga-rreren puntuan ezagutza, transmisioa eta hedapena sustatzeko neurriak hartzearen premia azpimarratu dituz-te, besteak beste, dantzaren doku-mentazio zentro publikoaren beharra aipatuta.

“Ingenios hidráulicos en Eibar” liburuaren aurkezpena

ASTEBURUAN GALIZIAKO TUI HERRIAN NAZIOARTE-KO MOLINOLOGIA KONGRE-SUAN aurkeztuko den “Inge-nios hidráulicos en Eibar” libu-ruaren berri eman zuten atzo goizean Koldo Lizarralde egile-ak eta lana argitara eman duen Ego Ibarra batzordeko orde-zkariak, udaletxean eskainitako prentsaurrekoan. Hauxe da Ego Ibarra kaleratutako lehe-nengo liburu elektronikoa eta atzoko agerraldian aditzera eman zuten, liburuaren sarean eskuragarri dago, www.egoi-barra.com webgunean, PDF eta epub formatuetan, “eta ba-

rruko esteka ugarirekin hornitu-tako lana” da. Horrez gain, ia 300 orrira ailegatzen den libu-ruak argazki eta dokumentu ugari dauzka. “Agiri horietako bat Soraluzeko fabrika nagusi-rako kanoiak egiten zituen Jose Luzar kanoigilearen semea zen Martin Luzar bikarioak eginda-koa dugu, Agustin bere anaia hil ondoren hark lanerako era-biltzen zituen tresna guztien zerrenda dakarrena”. Lizarral-deren ikerketa-lanak bitxikeriaz betetako pasarte ugari dauzka eta Eibarren historian zehar izan diren errota, ola, barrena eta zentral elektriko guztien be-




Eskuman, Eskaregi errota Ciriaco Arana Berraondo, Errotarixa, Eibarko azkenengo errota. Aldamenean, Uztapide bertsolaria (Arrate, 1978). / PLAZOLA

rri ere ematen digu. Eibarko az-ken errota “Errotarixa” gaitzi-zenez ezagutzen zen Ciriako

Arana Berraondo izan zen, 1970 inguruan itxi zen Eskaer-giko errota hain zuzen ere.

Egungo Islak erakusketa domekan itxiko dute



PORTALEKO ERA-KUSKETA ARETOAN IKUSGAI DAGOEN Ig-nazio Zuloagaren Egungo Islak erakuske-ta domekan itxiko dute. 16 eta 19 urte bitarteko 45 ikasleren orotariko artelanak ikusteko au-kerak dago, ohiko ordu-tegian (18.30etatik 20.30etara).

Aitor Cano Topalekuan


AURREKO BA-RIXAKUAZ GE-ROZTIK AITOR CANO ZUBIAU-RREREN PINTU-RAK ETA EGUR-TAILAK daude

ikusgai Topalekuan, Arrate Kultur Elkartean erakusketa aretoan. Erakuske-ta domekara arte egungo da zabalik, gaur 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara.




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, LEIRE, gaur hiru urte egiten dozuz-eta, sorgiñ haundi! Muxu potolua etxekuen eta, batez be, Malenen partez.




Zorionak, ANDER, bixar hamar urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Ongi etorri, NAIA!!, zapatuan espero genduan baiño arriño gure artera etorri ziñan-eta. Osaba Dani eta izeko Iriaren partez.



Zorionak, HARITZ, astelehenian zapzi urte beteko dozuzelako. Famelixaren partez.




Zorionak, UNAX, atzo sei urte egin zenduaz-eta. Patxo mordua etxekuen partez.



Zorionak, PAUL Alberdi, gure txapeldunak sei urte egin zittuan-eta hillaren 24an. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, IONE, gaur urtiak egiten dozuz-eta. Bederatzi urte honezkerok! Muxu haundi bat aitta eta amaren partez.




Zorionak, AINHIZE eta GARAZI. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, LOURDES. Jubilaziño bikaiña izan deizula. Zure lagunena partez.



Zorionak, MARIA Zabaleta Ojanguren (3 urte) eta NEREA Gorostiza Ojanguren (14 urte), zuen urtebetezietan. Etxekuen partez.



Zorionak, PAULA, hillaren 21ian hiru urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat June, aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, IBAI, atzo urtebete egin zendualako. Laztan haundi bat etxeko guztien eta, batez be, Maialenen partez.

HILDAKOAK

- Agustin Barrenetxea Guenaga. 89 urte. 2012-IV-19.
- Rosa Gutiérrez Tejedor. 87 urte. 2012-IV-20.
- Maria Errasti Azkoitia. 87 urte. 2012-IV-21.
- Andres Castellanos Fernández. 50 urte. 2012-IV-22.
- Felisa Areitioaurtena Rekalde. 97 urte. 2012-IV-22.
- Maria Martínez Carracedo. 80 urte. 2012-IV-23.
- Juanita Arrizabalaga Kortaberria. 88 urte. 2012-IV-23.
- Iñaki Prieto Isasti. 57 urte. 2012-IV-24.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

27an: 22.30
28an: 17.00, 19.45, 22.30
29an: 17.00, 20.00
30an: 20.30
1ean: 17.00, 20.00

"El exótico hotel Marigold"

Zuzendaria: John Madden

(2 ARETOAN)

27an: 22.30
28an: 17.00, 19.45, 22.30
29an: 17.00, 20.00
30an: 20.30
1ean: 17.00, 20.00

"Al borde del abismo"

Zuzendaria: Asger Leth

(ANTZOKIAN)

27an: 22.30
29an: 17.00, 20.00
30an: 20.30
1ean: 17.00, 20.00

"Los vengadores 3D"

Zuzendaria: Joss Whedon



JAOTAKOAK

- Lucas Martinena Pedraza. 2012-IV-15.
- Kattalin Izagirre Albistegi. 2012-IV-15.
- Ainhoa Rodríguez Miranda. 2012-IV-18.
- Luken Maiora Maiztegi. 2012-IV-19.
- Lucia Cámara Vázquez. 2012-IV-20.
- Naia Suárez De la Torre. 2012-IV-21.

horoskopoa

ARIES

Aitzakia ona eduki beharko duzu, bestela lagunak ez dute zure hutsa barkatuko. Zin egin zenien joango zinela, baina ez da horrela izango.

TAURUS

Zure ardurak ondo beteko dituzu, baina besteek ez dute euren lana modu berean egingo. Haserre egiteko lotsatuta? Ondo aztertu zer esan.

GEMINI

Azken aste biak gogaikarriak izan dira eguraldiari dagokionez eta horrek asko eragin ditu. Hala ere, aste honetan eguzkia irtingo da.

CANCER

Asteburua buru-makur hasiko duzu, baina orduak aurrera joan ahala gauzak hobetzen joango dira eta momentu bikainak biziko dituzu.

LEO

Badakizu udaberria alergien sasoi dela, eta orain arte nahiko ondo moldatu bazara ere, hemendik aurrera igarriko duzu kontu hori.

VIRGO

Egutegia begiratu eta ia maiatzean gaudela konturatuko zara. Zeinen azkar pasatzen den denbor! Planak prestatzen hasi beharko udarako!

LIBRA

Prezioak gora doazela, gizarte-arloan mozketak daudela, krisi ekonomikoa: kokoteraino zaude gauza horietaz! Lasai, irrifarrea egingo duzu laster.

SCORPIUS

Batzuetan adore handia izan behar da bizitzan aurrera egiteko, eta zuk izango duzu behar den adore hori. Hala ere, ez da egoera gozoa izango.

SAGITTARIUS

Zaila (edo ezinezkoa) da etorkizunean zer gertatuko den asmatzea, baina ederki dakizu asteburuan gertatuko dena. Neurriak hartu dituzu, ezta?

CAPRICORNIUS

Zure begiekin ikusiko baduzu ere, zaila egingo zaizu sinestea. Gauza harrigarria izango da, baina baita pozgarria ere. Hori da zoriona, hori!

AQUARIUS

Istorio bitxia kontatuko dizu lagun batek, baina astean zehar ikusiko duzu egia dela. Badago normala den norbait zure inguru horretan?

PISCIS

Urduri zaude biharko zitaren aurrean, baina ez duzu zertan kezkatu. Bera ere antzera dago, baina bion arteko kimikak ona besterik ez dakarkizue.

Barixakua 27**GAZTELEKUA**

16.30.- Break-dance ikuskizuna. Indianokua gaztelekuan.

BONBARDAKETAREN 75. URTEURRENA

19.00.- "Bonbardaketak 1937" liburuaren aurkezpena, Bernardo Atxagaren eskutik. Portalean. **23.30.-** "Itxaropena", argi, soinu eta irudiekin osatutako ikuskizuna. Untzagan.

DOKUMENTALA

21.30.- "Haizea eta Sustraiak", Jon Paredes "Txiki" eta berarekin frankismoak fusilatutako azken lau gizonen gaineko Iñaki Agirreren dokumentalaren emanaldia. Jarraian, Txiki-ren anaia biekien solasaldia. Gaztetxean.

Zapatua 28**AZOKA DEBALDE**

12.00.- Azoka Debalde: ekarri eta eraman nahi duzuna, doan. Gaztetxeak antolatuta. Urkizuko parkean.

ZAPATUKO IPUINA

18.00.- "Bidaian", Inguma taldearen eskutik. Juan San Martin Liburutegian.

BONBARDAKETAREN 75. URTEURRENA

19.00.- Andres Egiguren orkestra, Sostoa abesbatza eta Easo abesbatza kontzertuan. Sarrera: 10 euro. Coliseoan.

HITZALDIA

19.00.- Kartzelaren gaineko hitzaldi-egtabaida, preso sozial batekin. Gaztetxean.

KONTZERTUA

21.00.- Fly Shit, Hard Flip eta Ernia taldeen kontzertua. Afaltzeko pintxoak egingo dira. Gaztetxean.

Martitzena 1**AUTOBUSAK**

10.30.- CC.OO. eta UGT sindikatuek deituta, Donostian 12.00etan Alderdi Ederren hasiko den manifestaziora joateko autobusaren irteera. Ego Gainetik.

MANIFESTAZIOA

12.00.- LAB-ek deituta, eskualdeko manifestazioa. **14.30.-** Herri-bazkaria (tiketak LAB-eko egoitzan salgai). Untzagan.

Eguaztena 2**IKASTEN**

16.00.- Sendabellarren Foroa: Zolda-belarra eta bulneraria. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18.30.- "Autoestima", Ignazio Zuloaga institutuan.

Eguena 3**IKASTEN**

10.00.- "Giza-harremanak hobetzeko elkarriketa tresnak" hitzaldia, Equilia-ko kideen eskutik. Armeria Eskolan.

SANTA KURUTZEKO JAIK

17.30.- Kanpai-errepika. **18.00.-** Meza, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Santa Kurutzeko ermitan.

EGO IBAR ZINE-KLUBA

17.30 eta 21.00.- "Declaración de guerra" (Zuz: Valérie Donzelli). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

BONBARDAKETAREN 75. URTEURRENA

20.30.- Cine y Guerra Civil en el País Vasco: "Entierro del benemérito sacerdote vasco José M^a de Korta y Uribarren, muerto en el frente de Asturias", "Semana Santa en Bilbao", "Gernika" eta "Elai-Alai". Coliseoan.

lehiaketak**– Li (buru-hausgarriak).**

Apirilaren 17tik aurrera, umeen liburutegian (LH-ko 2. mailatik aurrerakoentzat).

– Amestu Zure Herria.

Informazioa eta lanak entregatzea: *Apirilaren 30era arte*, www.gurebalioak.com atarian.

– Ixua-Valenciaga Memoriale argazki-lehiaketa.

Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzaren 4ra arte*, Elbarko Txirrindularien Elkartearen (Pagaegi, 3 behe), cce@clubciclistaeibarres.org

– Sanjuanak 2012 Eibarren kartel lehiaketa.

Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzaren 11ra arte*, Pegoran.

– Alkohol gehiegikeriaren kontrako umorezko pegatina- lehiaketa.

Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzaren 11ra arte*, Pegoran.

– Amaren Eguna marrazki lehiaketa.

Gaia: Amaren irudia. 4-12 urte bitartekoentzat marrazki lehiaketa. Noiz eta non: *Maiatzak 5*, 18.00etan El Corte Inglés-eko hitzaldi aretoan.



erakusketak

- Apirilaren 29ra arte
"INDALEZIO PRIETO euskal politikan, 1883-1962". Portalean.
- AITOR CANO**ren pintura eta egur-taila erakusketa. Topalekuan.
- IGNAZIO ZULOAGAREN EGUNGO ISLAK** Arte Batxilergoko ikasleen erakusketa. Portalean.
- Apirilaren 30era arte
JOSE VILAren "Aratosteak" argazki erakusketa. Portalea tabernan.
- JOSE LUIS IRIGOIEN**en "Aratosteak" argazki erakusketa. El Ambigú kafetegian.
- ASIER ARANZABAL**en "Mongolia" argazki erakusketa. Klub Deportiboan.
- Maiatzaren 1etik 31ra arte
31. ARGIZAIOLA LEHIAKETAko lanen erakusketa. Klub Deportiboan.
- DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEA.** El Ambigú, Portalea taberna eta Untzagako jubilatuenean.
- Maiatzaren 4tik 27ra arte
JOSE BENITO RUIZen "Diálogos sobre composición" argazki erakusketa. Portalean.
- XAVIER FERRER CHUST**en "Grabarka" argazki erakusketa. Portalean.
- SANTOS MORENO VILLAR**en "Alma de Cuba" argazki erakusketa. Portalean.
- Maiatzaren 4tik ekainaren 3ra arte
JULIAN OCHOAren "Cuba" argazki erakusketa. Arrate Kultur Elkartean.

farmaziak

- 27, barixakua**
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
 GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 28, zapatua**
 EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
 GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- 29, domeka**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 30, astelehena**
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 1, martitzena**
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
 GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 2, eguaztena**
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
 GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 3, eguena**
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
 GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 4, barixakua**
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
 GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

telefono jakingarriak

- SOS delai112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak


EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

			4	3	2			8
	8							5
		9			5	7		
				7			4	
6	7							8 9
	1			6				
		5	1			4		
	9							6
3			2	5	9			

DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Estaziño kalean. 81 m². Logela bi, egongela, sukaldelagangela, komun bi eta trasteroa (8 m²). Igogailua. Guztiz berritua eta altzariekin. Tel. 660-739563.
- Pisia salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). Logela bi, egongela, sukaldela, komuna eta igogailua. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

- Hiru logelako pisua behar dut Eibarren. Tel. 652-532589.
- Oporretarako pisua alokagai Santonñan. Logela bi. Inguru lasaia, hondartzetatik gertu. Tel. 669-980932.
- Pisia alokagai Ubitxa kalean. 2 logela. Igogailua eta kalefakzioa. Sartzeko moduan. Tel. 685-732596.
- Pisia alokatuko genuke Ermuan edo Eibarren. Tel. 666-777837.
- Urki auzunean logela alokagai neska euskaldun batentzat. Sukaldera eta egongelara sartzeko esku-bidearekin. Tel. 637-276278.
- Pisia alokagai Elgetan. Ia berria. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta bi komun. Tel. 606-083992.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai Asua-Errekan. Sarrrera ona. Tel. 670-793312.
- Garajea salgai Bittor Sarasketan. Tel. 617-742848.

3.2. Errentan

- Behaldea alokagai Ubitxan. 100 m². Tel. 617-688311. Maria.
- Garajea alokagai. Tel. 617-688311. Maria.
- Martxan dagoen ostalaritza negozioa salgai. Tel. 616-664880.
- Neska talde batek lokal bat hartuko luke alokairuan, bainuarekin. Eibarren, Urkizu aldean ahal bada. Tel. 697-532570.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 686-617961.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 638-523922.
- Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 606-502567.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da banatzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta obretan lan egiteko. Tel. 600-084133.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-461600 eta 943-743638. Arrate.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 646-778839.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 634-887814.
- Klinika laguntzailea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 653-730945.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 648-619247.
- Neska eskaintzen da ileapaintzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-109323.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-910182.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da ileapaintzaile jarduteko etxez-etez eta umeak zaintzeko. Tel. 662-204193.
- Neska euskalduna eskaintzen da ileapaindegian lan egiteko. 11 urte-tako esperientzia. Tel. 610-096417.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 660-164576.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 681-042214.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 618-827520.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 677-689227. Aitziber.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 639-611454.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-782031.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084.
- Mutil arduratsua eskaintzen da tabernan lan egiteko. Esperientzia barran, jantokian eta sukaldan laguntzen. Tel. 686-052084 eta 943-257815.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 666-771151.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 674-481945.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 628-924044.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 695-144954.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 671-329852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 670-831279.
- Neska euskalduna eskaintzen da tabernak, soziedadek eta pegorak garbitzeko. Tel. 637-276278.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxekolanak egiteko. Tel. 636-922727.
- Ordenagailuak konpontzen dira etxez-etez. Prezio onean. Tel. 669-639526.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (egunez, gauzez edo orduka) eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-632922.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 943-029329 eta 670-831279.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-257684 eta 671-328852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 650-152866.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 686-802342.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 675-007271.

4.2. Langile bila

- Emakume euskalduna behar da astelehenetik ostiralera, 09.00etatik 12.00etara, etxekolanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 671-555268.
- Kamareroak eta sukaldari-laguntzaileak behar dira taberna berri batean lan egiteko. Ezinbestekoa euskaraz jakitea. Tel. 686-567471.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Magisteritzako ikasleak LH eta DBHrako klase partikularrak ematen ditu. Tel. 685-704065 eta 673-600545.
- Euskara klaseak ematen dira azterketak prestatzeko eta perfilak eta EGA lortzeko. HABE-ren mailak. Tel. 620-608065.
- Gazte tituluduna eskaintzen da DBHko Zientziak arloko klase partikularrak emateko. Esperientzia. Tel. 636-385156.
- Esperientziadun irakaslea eskaintzen da maila desberdinetako klase partikularrak emateko. 2/3 lagun. Tel. 685-739709.


6. Denetarik

6.1. Salgai

- Izotz-makina eta Lomi zukugailua salgai. Berriak. Tel. 676-753898.
- Bizkarreko mina kentzeko tresna dut. Tel. 943-821279.
- Bulego-materiala salgai (Herpesa etxekoa). Egoera onean. Tel. 692-714685.
- Avalanch 3.0 bizikleta salgai. Tel. 687-342962.
- Hankadun somierria (1'35x1'90), bi mahaitxo eta bi lanpara salgai. Ia berriak. 80 euro. Tel. 660-805301 eta 679-867543.
- Salmoi koloreko sofa bi salgai (3 eta 2 lagunentzakoak). Urtebete. 300 euro. Tel. 660-805301 eta 679-867543.

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**




**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK



San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2012-2013 ikasturterako eskaintza

BATXILERGOAK (A eta D)

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

**Badugu
ikasteko
leku bat
zuretzat!**

La Salle
Eibar


Euskadi
2009

943 121 698

**maiazaren
2tik 11ra**



I.E.S Ignacio Zuloaga B.H.I

